

XagunArtea

2011ko irailaren 26a

Xagun aldizkaria

BEREZIA

Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren XVII. azoka





Goizean goiz euria gogoz ari bazen ere, eguerdirako atertzera egin zuen eta jendea erruz ibili zen plaza aldean.



Sagar asko ez egon arren, muztio bikaina egin zuten herriko gazteek tolaean.



Lixibagileak urtero bezala fin aritu ziren.



Herriko produktuekin ere postu bikaina jarri zuen Mandiok.



Ortxataria ere etorri zen karro eta guzti.



Behorraren ilearekin era zaharrera soka egin zuten.



Xabier, Julian eta Jon egindako zurda-sokarekin.



Salmenta postu koloretsuak egon ziren azoka hasieran. Amaieran gehiena salduta.



Ikuskizun polita izan zen sokagintza.



Gozogintzako tailerlean majo disfrutatu zuten txikienek.




Euriaren beldurra gaituta, jendea erosteko gogoz etorri zen.




Txingetan parte hartu zutenak lana egin ondoren.



Ander Goitiak irabazi zuen gizonezkoen txinga lehiaketa.



Aizkora saioan, Xabier Dorronsorok eta Lakiolak mendean hartu zituzten Imanol Mendiata eta Aitor Urteaga.



Dema polita eskaini zuten harri-jasotzen eta korrika.



Kana-erdi pasatxoko seina egur moztu zituzten aizkolariek.